


# CORPUS CHRISTI

***"Tu compromiso mejora el mundo"***

***3 de junio del 2018***

***MONICION de entrada:***

Culminamos las grandes fiestas de la liturgia cristiana con la celebración del Corpus Christi. La presen

cia de Cristo es real y cotidiana en medio de nosotros cada vez que nos reunimos para repetir aquel gesto de amor que Él nos dejó en aquella noche santa, antes de su entrega. No hay mayor amor que el de dar la vida. Eso es caridad. Por eso celebramos el día de Caritas, la fiesta del amor compasivo y misericordioso de Dios, en este día del Corpus, que este año nos recuerda, sobre todo, la importancia de comprometernos a seguir la obra de Jesús. Se trata de configurar nuestras vidas al estilo de Jesús, en la cotidianidad del amor acogido y ofrecido, a todos.

***PERDON***

Al celebrar la Eucaristía, sacramento del amor eterno, hagamos un momento de silencio y presentemos ante Dios nuestra esperanza.

- Tú, pan vivo bajado del cielo. *Señor ten piedad*.
- Tú, alimento de vida eterna. *Cristo ten piedad*.
- Tú, resurrección y vida nuestra. *Señor ten piedad*

El Dios del amor, que nos alimenta con su Palabra y la Comunión, tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. Amén

**LECTURAS**

- **Éxodo 24, 3-8**: En el Antiguo Testamento había un rito que significaba la alianza de Dios con el pueblo. Era como una figura anticipada de lo que nosotros vivimos en la Eucaristía.

- **2 Hebreos 9, 11-15**: Nos acercamos a Dios no por los ritos repetidos desde la antigüedad, sino por Jesucristo salvador entregado para darnos nueva vida.

- **Marcos 14, 12-16. 22-26**: Tomad y comed, tomad y bebed, dice Jesús, invitándonos a entregarnos cada uno, dando lo mejor de nosotros mismos, el amor regenerador de la vida.

## SUGERENCIAS PARA LA HOMILIA

La fiesta del Corpus puede ser una ocasión adecuada para que, en cada comunidad parroquial, pastores y fieles nos preguntemos qué estamos haciendo para que la eucaristía sea, como dice el Concilio, "fuente y culmen de toda la vida de la comunidad cristiana". Una comunidad, la nuestra que, está fundada en el amor entregado (tomad y comed, tomad y bebed). La caridad es eso, un amor derramado, desparramado, generoso, bondadoso…gratuito (dad de comer, vestir, visitar, aconsejar, enseñar…). Y la eucaristía no hace más que acoger y recoger este misterio de un Dios Amor, encarnado en Jesucristo por la fuerza del Espíritu Santo que actúa transformándonos en personas más humanas, por ser hijos de Dios y salvados por la fuerza de Jesús, el Camino, la Verdad y la Vida.

El evangelio de hoy subraya la preparación de la cena que, también nos puede servir aquí y ahora, para reflexionar en cómo nos preparamos para la cena eucarística y cómo actualizamos esta cena, en la vida cotidiana. Hay mucha gente que insiste en que la misa no le dice nada… y otros que recuerdan que hay que vivir la misa en la mesa de la fraternidad de todos los días… La verdad es que, necesitamos disposición para lo uno como responsabilidad para lo otro. No cabe eucaristía actualizada sin oración, silencio interior, escucha de la Palabra, generosidad… y no cabe verdadera eucaristía sin conversión, sin mejoramiento, sin transformación de cara a los que viven peror que nosotros.

El lema institucional de Caritas va en consonancia con todo lo que decimos: "tu compromiso mejora el mundo". ¿Quién va a negar que eso sea verdad? La cuestión es que, hay gente que piensa que, hablar de compromiso es cosa de otros tiempos, tiempos pasados de moda… hoy parece que lo que interesa en consumir y no tanto compartir, aunque, ciertamente haya mucha gente buena comprometida hasta el fondo. Ellos son un espejo en donde mirarnos por la concreción que significa solidarizarse con los enfermos, los encarcelados, los de la calle, los desempleados… y siempre está ahí el referente mayor de la fe, es Jesús de Nazaret, el Señor, el que nos inspira y nos responsabiliza para que no perdamos el rumbo del vivir humanamente y santamente.

Todos conocemos a personas que trabajan comprometidos con causas y situaciones de necesidad que, bien merecen la pena. Son aquellos que están promoviendo, en la Iglesia y el mundo, todo un estilo de vida contra el individualismo aislacionista, la competitividad pura y dura, el egoísmo exacerbado… Caritas está en este ámbito de vida comprometida que configura nuestro ser cristiano, al estilo de Jesús, enviado por Dios, Amor compasivo y misericordioso, encarnando su ser y su hacer en una Iglesia que quiere configurarse sacramental y realmente en el Maestro.

Ante el vértigo que nos genera este mundo en caos donde las injusticias, el sufrimiento y el desprecio continuado de los derechos humanos fundamentales son el pan nuestro de cada día, no podemos ocultarnos, como los primeros discípulos, entre cuatro paredes para seguir haciendo nada, sino todo lo contrario. Somos cristianos que

elegimos, por la gracia de Dios, vivir comprometidos en el seguimiento de Jesucristo, arriesgando lo mejor de nosotros mismo, una vida vivida desde y para el amor al prójimo, como signo fundamental de nuestra identidad creyente: mirad cómo se aman.

## *ORACION DE LOS FIELES*

En este día en que Cristo nos ofreció signos palpables de su amor eterno, oremos confiadamente al Padre de la misericordia.

1. Para que la Iglesia, que parte el pan, sea un modelo a la hora de compartir los bienes materiales y espirituales y trabajar por la justicia. *Roguemos al Señor*.

2. Para que los más pudientes de este mundo oigamos los gritos de tantos que quieren y necesitan un mayor bienestar. *Roguemos al Señor.*

3. Para que los que comulgamos con Cristo nos comprometamos a vivir la comunión fraterna y trabajemos por un mundo más solidario. *Roguemos al Señor.*

4. Para que este día de la Caridad fortalezca a los voluntarios y trabajadores de Caritas y sientan la fuerza del Espíritu en sus vidas. *Roguemos al Señor*.

Padre bueno, escúchanos y ayúdanos a vivir como verdaderos hijos tuyos y hermanos de todas las personas. Por Jesucristo nuestro Señor. Amén.

## *COLECTA*

La colecta de este día está destinada a la Cáritas de la Parroquia, para que podamos disponer de los fondos necesarios y ayudar a las personas y familias más necesitadas en nuestro entorno, tal como lo venimos haciendo hasta ahora.

# KORPUS EGUNA

## *"Zure konpromisoak mundua hobetzen du"*

### *2018ko ekainaren 3a*

## *Sarrerako OHARRA:*

Corpus Egunarekin amaituko ditugu kristau-liturgiaren jai handiak. Kristo gure artean dago, egiaz dago gurekin, hark gugatik bizia eman aurreko gau santu hartan egindako maitasun-keinua errepikatzeko elkartzen garen bakoitzean. Ez dago bizitza ematea baino maitasun handiagorik. Karitatea da hori. Horregatik ospatzen dugu Caritasen eguna, Jainkoaren maitasun errukiorraren jaia, Corpus egun honetan. Aurten, batez ere, Jesusen egintzari jarraitzeko konpromisoaren garrantzia gogoratzen digu. Gure bizitzak Jesusen estilora taxutu behar ditugu, eguneroko bizitzan maitasuna eskaintzean eta hartzean oinarrituta, guztientzat.

## *BARKAMENA*

Eukaristia ospatzean, betiereko maitasunaren sakramentua, egin dezagun isilune bat eta aurkez diezaiogun Jainkoari gure itxaropena.

- Zu, zerutik jaitsitako ogi bizia. *Erruki, Jauna.*
- Zu, betiko bizitzako elikagaia. *Kristo, erruki.*
- Zu, piztuera eta gure bizitza. *Erruki, Jauna.*

Maitasunaren Jainkoak, bere Hitzaren eta eukaristiaren ogiz elikatzen gaituenak, erruki gaitzala, barka ditzala gure bekatuak eta eraman gaitzala betiko bizitzara. Amen.

## IRAKURGAIAK

- **Irteera 24, 3-8:** Itun Zaharrean, bazen erritu bat, Jainkoaren eta herriaren arteko ituna adierazten zuena. Guk eukaristiaren bidez bizitzen dugunaren aurre-figura moduko bat zen.

- **2 hebrearrei 9, 11-15:** Jainkoarengana gerturatzen gara, ez antzinatik errepikatutako errituengatik, baizik eta guri bizitza berri bat emateagatik bere burua eman zuen Jesu Kristo salbatzailearengatik.

- **Markos 14, 12-16. 22-26:** "Hartzazue eta jan, hartzazue eta edan", esaten digu Jesu sek, gutako bakoitzak geure onena eman dezagun: bizitzaren maitasun birsortzailea.

**SERMOIRAKO IRADOKIZUNAK**

Korpus Eguna aukera egokia izan liteke parrokia-komunitate bakoitzean artzainok zein fededunok geure buruari galdetzeko zer egiten dugun, Kontzilioak dioen bezala, eukaristia "kristau-elkartearen bizitza osoaren iturri eta gailurra" izan dadin. Maitasuna ematean oinarritzen da gure elkartea (hartzazue eta jan, hartzazue eta edan). Horixe da karitatea: maitasuna isuri eta barreiatzea, maitasun eskuzabala, onbera, doakoa (jaten eman, jantzi, bisitatu, aholkatu, irakatsi...). Eta eukaristiak Maitasun Jainko baten misterioa hartu eta jaso besterik ez du egiten. Espiritu Santuaren indarrez Jesukristorengan haragitutako Maitasun Jainko horrek gugan jarduten du, pertsona gizatiarragoak izan gaitezen, Jainkoaren seme-alabak garelako, Jesusen indarraz salbatuak.

Gaurko ebanjelioak afariaren prestaketa nabarmentzen du, eta hemen eta orain ere balio diezaguke, eukaristiako afarirako nola prestatzen garen eta eguneroko bizitzan afari hori nola gaurkotzen dugun hausnartzeko. Jende askok esaten du mezak ez diola ezer esaten... eta beste batzuek, berriz, gogorarazten dute senidetasunaren eguneroko mahaian bizi behar dela meza. Egia esan, prestasuna behar da baterako, eta ardura besterako. Ez dago eukaristia gaurkotzerik, otoitzik gabe, barneko isiltasunik gabe, Hitza entzun gabe, eskuzabaltasunik gabe… Eta ez dago benetako eukaristiarik, konbertsiorik gabe, hobekuntzarik gabe eta gu baino okerrago bizi direnekiko eraldaketarik gabe.

Caritasen lelo instituzionala bat dator esandako guztiarekin: "Zure konpromisoak mundua hobetzen du". Nork ukatuko du hori egia dela? Alabaina, batzuek uste dute konpromisoaz hitz egitea beste garai batzuetako kontua dela, modatik pasatako zerbait… Gaur egun, badirudi kontsumitu besterik ez dela egin nahi, eta ez hainbeste partekatu, nahiz eta jende on asko ere badagoen bene-benetan konprometitua. Haiek dira gure ispilu, eta zehaztasunez erakusten digute zer den gaixoekin solidario izatea, espetxeetan daudenekin, kalean bizi direnekin, langabezian daudenekin… Eta beti dago hor fedearen erreferentzia nagusia, Jesus Nazaretekoa, Jauna. Hura da gure inspirazio-iturria; hark eramaten gaitu erantzukizuna hartzera, duintasunez eta santutasunez bizitzeko bidea gal ez dezagun.

Guztiok ezagutzen ditugu merezi duten kausekin eta behar-egoerekin konprometituta lanean ari diren pertsonak. Pertsona horiek bizi-estilo bat ari dira sustatzen, bai Elizan bai munduan: indibidualismo isolatzailearen aurkako bizimodua, lehiakortasun gordinaren aurkakoa eta berekoikeria amorratuaren aurkakoa. Konpromisozko bizitzaren eremu horretan dago Caritas ere.

Bidegabekeriak, sufrimendua eta oinarrizko giza eskubideen mespretxua eguneroko ogi diren mundu kaotiko honek zorabioa eragin arren, ezin gara lehen dizipuluak bezala lau hormen artean ezkutatu, ezer ez egiten jarraitzeko. Kontrakoa egin behar dugu. Jainkoaren graziaz, Jesukristori jarraitzeko konpromisoarekin bizitzea aukeratzen duten kristauak gara. Horretarako, gure onena jartzen dugu arriskuan, hurkoaren

maitasunetik eta maitasunarentzat bizitako bizitza, gure identitate fededunaren oinarrizko seinale gira: begira nola maite duten elkar.

## *FEDEDUNEN OTOITZA*

Egun honetan, Kristok bere maitasun betierekoaren seinale nabarmenak eman zizkigun. Egin diezaiogun otoitz konfiantza osoz errukiaren Aitari.

1. Ogia banatzen duen Eliza eredu izan dadin ondasun materialak eta espiritualak banatu behar direnean eta justiziaren alde lan egin behar denean. *Eska diezaiogun Jaunari.*

2. Mundu honetako aberatsenek, ongizate gehiago nahi eta behar dutenen oihuak entzun ditzagun. *Eska diezaiogun Jaunari.*

3. Jauna gure artean hartzen dugunok senideen arteko batasunean bizitzeko eta mundu solidarioago baten alde lan egiteko konpromisoa har dezagun. *Eska diezaiogun Jaunari.*

4. Karitate egun honek Caritaseko boluntarioak eta langileak indartu ditzan eta beren bizitzetan Espirituaren indarra senti dezaten. *Eska diezaiogun Jaunari.*

Entzun iezaguzu Aita, eta lagun iezaguzu bizitzen, zure seme-alaba gisa eta pertsona guztien senide gisa. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

## *DIRU-BILKETA*

Egun honetan bildutako dirua Parrokiako Caritasentzat da, baliabideak izan ditzagun gure inguruko pertsonarik eta familiarik behartsuenei laguntzeko, orain arte egin izan dugun bezala.